

# "NAFARROAKO BELARDI LORATUAK" I. LEHIAKETA

## -LEHIAKETAREN OINARRIAK -

### 1. Lehiaketaren antolatzailea

Orekan - Gestión Ambiental Navarra

### 2. Lehiaketaren eremua

Balio natural handiko sega-belardiak, Nafarroako I (ipar-mendebaldea), II (Pirinioak) edo III (Iruñea) nekazaritza-eskualdeetan daudenak.

Balio natural handiko sega-belardiak (AVN), edo lehiaketa honen testuinguruan belardi loratuak, abeltzaintza estentsiboko maneiuei lotutako larre erdinaturalak dira. Mota horretako belardiek flora-aniztasun handia dute, eta kultura- eta paisaia-balio handiko elementuak (harrizko bordak, horma, heskaiak, zuhaitz lepatuak) biodibertsitateerako babesleku direnak. Kontserbazio-balio handia dute, Nafarroan oso eskasak baitira. Nafarroako Belardi Loratuen I. Lehiaketak saritu nahi ditu sistemaren biodibertsitatea eta iraunkortasuna areagotzen duten larre-kudeaketako jardunbide egokiak, eta,aldi berean, balioetsi nahi du abeltzaintza estentsiboak biodibertsitatearen eta paisaiaren kontserbazioan eta horrek dakartzan ondasun publiko guztien duen zeregina. Belardi horietako batzuk 92/43/EEE Habitategi buruzko Zuzentarauaren Batasunaren Intereseko Habitatak izan daitezke; zehazki, HIC 6510, Arrhenatherum bulbosum eta Malva moschata belardiak (HIC 6510 551015) eta Rhinanthus mediterraneus eta Trisetum flavescens sega-belardiak (HIC 6510 551014) barne.

2025eko Nafarroako Belardi Loratuen I. Lehiaketa Interreg POCTEFA RED-bio proiektu europarraren esparruan antolatu da. Proiektu horren helburua biodibertsitatea eta erabilera sozioekonomikoak hainbat ingurune naturaletan bateragarri egiteko tresnak bilatzea da. Halaber, bat dator apirilaren 115E/2025 Foru Aginduan jasotako Balio Natural Handiko Sega Belardietarako (BNH) laguntzarekin. Laguntza hori Nekazaritza Politika Bateratuaren Plan Estrategikoan (NPBPE) sartu da. Laguntza emaitzen arabera ordainketetan oinarritzen da, eta mota horretako azalerak kudeatzen dituzten abeltzainei ematen dira. Horiek bost urteko epean beraien soroetan balio natural handia (biodibertsitatea hartzeko gaitasuna) ebaluatzeko konpromisoa hartzen dute.

Aurretik Frantzia eta Euskal Herrian egindako antzeko lehiaketak oinarri izan dira lehiaketa hau Nafarroan antolatzeko.

### 3. Composición del jurado

Gaitasuna	Izena	Kargua
Koordinatzailea / Epaimahaiburua	Aritz Zaldua	OREKANeko Biodibertsitate Arloa eta RED-bio proiektuaren Nafarroako koordinatzailea
Botanikaria	Vanessa Claveria	Flora eta habitateko taldea – Biodibertsitate Arloa. OREKAN
Nekazal Ingeniaria	Silvia Zabalza	Nekazal dibertsitate eta LGP taldea – Baso eta Agrosistemetako Arloa. OREKAN
Albaitaria	Vanesa Alzaga	Ehiza Kudeaketa Taldea – Baso eta Agrosistemen Arloa OREKAN

### 4. Lehiaketaren garapena

Lehiaketak 4 fase izanen ditu:

- **1. Fasea: Lursailaren inskripzioa.**

Hautagai bakoitzak lursail bakarra inskribatu ahal izango du. Izena emateko ondorengo telefono zenbakietara deitu beharko da: 680133421 (Silvia) edo 686474594 (Miryam), honako hauek adieraziz:

- ✓ Hautagaiaren izen-abizenak
- ✓ Lursailaren SIGPAC kodea
- ✓ Helbide elektronikoa
- ✓ Harremanetarako telefono-zenbakia

- **2. Fasea: Epaimahai aditu batek ebaluatzea**

Lursaila inskribatzen denetik 2025eko uztailaren 31ra bitartean, ebaluaziorako data bat zehaztu beharko da. Segua egin edo azienda sartu aurretik egin behar da, modu egokian egin ahal izateko. Botanikari batek, nekazal-ingeniari batek eta albaitari batek osatutako epaimahai batek egingo du ebaluazioa, eta 3 alderditan banatuko da:

- A. **Flora-aniztasuna (100 puntu):** Belardiko flora-aberastasuna estimatzean datza, habitat honetarako positiboak diren landare-espezieak zenbatuz eta egoera onean mantentzeko espezie positiboen eta negatiboen banaketa eta ugaritasuna zehaztuz (A.1. Osotasun ekologikoa). Sega-belardian egindako jarduera impaktu-eragileak eta etorkizunerako aurreikuspenak ere kontuan hartuko dira (A.2. Eraginak, mehatxuak eta etorkizunerako aurreikuspenak)
- B. **Balio Natural Handiko elementuak (20 puntu):** Biodibertsitateerako babeslekuak diren elementuen presentzia eta kontserbazio-egoera ebaluatuko dira. Ontzat joko da hormak, bordak, zuhaitzak, heskaiak, hezeguneak, erlauntzak eta mikrohabitatak egotea.
- C. **Belardiaren kudeaketa eta animalien ongizatea (30 puntu):** Belardian egindako nekazaritza-praktiken eta abereen kudeaketaren arabera ebaluatuko da.

Flora aniztasuna eta balio natural handiko elementuen ebaluazioa inskribatutako belardian egingo da, eta ez da nahitaezkoa izango abeltzaina bertan egotea. Belardiaren erabilera eta animalien ongizatea ebaluatzeko, berriz, parte-hartzailearekin telefonoz edo aurrez aurre galdetegi bat egingo da.

Lehiaketaren irabazlea izango da oreka agroekologiko onena izango duena, aipatutako alderdiak kontuan hartuta (lortu daitezkeen 150 puntuetatik, puntuaziorik altuena lortzen duena). Eta bere produktuentzako ziurtagiri bat jasoko du, lehiaketaren irabazle eta biodibertsitatearen sustatzaile gisa egiaztatuz.

- **3. Fasea: Epaimahaiaren deliberazioa eta lehiaketaren irabazlearen jakinarazpena.**

Ebaluazio-aldia amaitu ondoren, epaimahaiak bere erabakia jakinaraziko dio Nafarroako Belardi Loratuen I. Lehiaketaren irabazleari (ebaluazioan puntuazio handiena duenari). Horretarako, antolatzaileek irabazleak emandako telefono zenbakira deituko dute. Ondoren, epaimahaiaren erabakia parte-hartzaile guztiei jakinaraziko zaie.

- **4.Fasea: Sari-banaketa**

Irabazleak Nafarroako Belardi Loratuen I. Lehiaketan lehen saria jaso zuela ziurtatzen duen zigilu batekin etiketatu ahal izango ditu bere produktuak. Sari-banaketa abeltzaintza estentsiboarekin lotutako ekitaldi batean egingo da, eta ebaluazio-aldiaren amaieran iragarriko da.